



FABULAK

Zer dira fabulak?



Fabula

- ▶ **Ipuin** laburra da.
- ▶ Pertsonai nagusiak **animaliak** dira.
- ▶ Ipuinaren amaieran aholku txiki bat dago. Horri **moraleja** deitzen zaio

Bi astoak.

Herrirako bidean bi asto zebiltzan. Batek gatza zeraman bizkarrean eta besteak belakiak. Bide erdian ibaia zegoen eta asto biak ibai ertzean gelditu ziren jakin gabe nola zeharkatuko zuten ibaia.



Belakia



Gatza

Zeintzuk dira ipuin honen protaagonistak?

Zein da beren arazoa?

Bi astoak

Azkenean gatza zeraman astoak aurrera egin eta uretan sartu zen. Laister eta pozik konturatu zen bere zamaren pisua gero eta txikiagoa zela, horregatik azkar iritsi zen beste aldera.



Luma arina da



Ingudea astuna da

Zergatik zen gero eta arinagoa bere zama?



Bi astoak

Beste astoak ikusi zuenean bi aldiz pentsatu gabe uretara sartu zen. Bidean belakiak bete ziren. Astotxoaren zama gero eta handiagoa zen. Horren ondorioz ibaian ito zen gizajoa.

Zein da moraleja zure ustez?



Bi astoak

Moraleja:

Zerbait lortu nahi duzunean pentsatu behar duzu pixka bat gauzak ondo ateratzeko.